

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2025eko OTSAILA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,0 jaitsi dira 2025eko otsailean

Aurreko hilaren aldean salmentak % 0,3 gehitu ziren

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,0 murriztu dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren. Aurreko hilaren aldean, hau da, 2025eko urtarrilaren aldean, % 0,3 igo dira prezio konstanteetako salmentak, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Urte artean, salmenten bilakaera negatiboa izan da Elikaduran % 2,7 jaitsita (2025eko otsaila 2024ko otsailaren aldean) eta Gainerako produktuetan ere % 0,6 jaitsi da.

Hil artean salmentak % 1,0 igo dira Gainerako produktuen sektorean. Elikagaien sektorean, aldiz, salmentak % 0,1 jaitsi dira aurreko hilaren aldean.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2025

	Prezio finakoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-2.0	0.3	-1.2
Araba/Álava	-3.2	0.0	-2.3
Bizkaia	-0.9	0.4	-0.6
Gipuzkoa	-3.5	0.2	-1.9
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	-2.7	-0.1	-1.5
Gainerako produktuak	-0.6	1.0	-0.6
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1.4	0.3	1.4

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko Martxoaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza Indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Urte artean, 2025eko otsailean, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek behera egin dute hiru lurralde historikoetan: % 3,5 Gipuzkoan, % 3,2 Araban eta % 0,9 Bizkaian.

Hil artean, aldiz, salmentak egonkor mantendu dira Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan % 0,4 eta % 0,2 hobetu dira, hurrenez hurren.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan **okupatutako langileak** % 1,4 igo dira 2024ko otsailarekin alderatuta. Hil artean, indizea % 0,3 igo da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urtetik urterako aldaketak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatzen dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serietan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,97ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62